


ren bat edo euskaltzalea da baina ezin dute, eta orain irakasleriaz ari naiz, haien arteko gutxieneko antolakuntza lortu, proposamenak egin eta horien inguruko ekintzak burutu. Gu gara arazoa, euskaldunon arazoa da, negarti hutsak garelako. Hau da irakasleriaren arazoa. Ikasleriari dagokionez ez da batere egokia hauen talde batek bere gain hartzea euskararen aldeko aldarrikapena. Eskertu behar zaie baina hizkuntza unibertsitari talde jakin batekin lotzea da gerta litekeen okerrera. Aldarrikapena zabaldu behar da, bestela ez gara putzutik aterako, “getho”an biziko gara. Azken hau ere biziki gustatzen zaigu euskaldunoi, negar egiteaz gain, “getho”an bizitzea.

■ **Nola ikusten dituzu NUP eta EHUren arteko harremanak?**

Ikuspegi akademiko batetik hartuta Euskal Herria ez da existitzen. Nik uste dut errektoreen arteko harremanetan EHUkoak, nafarra denak, interesa izango lukeela baina NUPen aldetik ez dago interesik. Hemen egiten dena da EHUkoekiko harremanen arazoa lurralde zabalago batean urtu, beste unibertsitate batzuk sartuz: Logroño, Zaragoza... Errektoretzaren aldetik ezin da gauza handirik espero eta egon daitezkeen erlazioak sailen artekoak dira, baina betiere txikiak. Ez soilik arrazoi politikoengatik baizik eta arrazoi akademikoengatik oso interesgarria izango litzateke egun ez ditugun harremanak



OSKAR MONTERO

■ «Deula urte batzuetatik hona euskaldunok negarti hutsak gara».

edukitzea.

■ **Nafarroako Unibertsitate Publikoa errealitate sendoa dela kontuan hartuta, egokia al da Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatearentzat Euskal Herriko Unibertsitatearen izena?**


Izena desegokia da. Ni errektorea nintzenez aukeratu genuen izen hori baina nik uste ez dela batere egokia. Baina desegokia da baita “Pais Vasco” esatea Eus-

kal Autonomia Erkidegoari, Euskal Herriarekin lotuz honen zati bat besterik ez denean. Edota Jose Antonio Ardanazak esaten duenean euskal herritarren lehendakaria dela soilik arabar, gipuzkoar eta bizkaitarren denean. Alde horretatik azken urteotan utzikeri handia egin dugu hizkuntza aldetiko zehaztasunean, oso utzikeri arriskutsua.

■ **Euskal Unibertsitatearen proiektua bigarren maila batean geratu dela ema-**

T a n t o a

Idea garbietako nafar praktikantea



■ **Joxe Azurmendi**
Idazlea eta filosofoa

Ageriko kargu askotan egon da —senatore, parlamentari, UPV/EHUko errektore... Horregatik haren ezkutuko lan asko gutxiago ezagutzen da, kargu horietatik nahiz bestela egindakoa. Esango nuke inportantziarik handieneko lan isila izan duela hori berak urteetan, eta duela orain ere.

Beste guztiaren aurretik horixe gorai patuko nuke nik, hortaz, Monrealen egiazko esanahiaren aldetik Euskal Herriarentzat. Jende askoren laguntzaile eta promozionatzailearen eginkizun abertzalea, adiera etimologikoan. Eta erakundeetako bere zeregin haietaz isildu egingo naiz orain, beste noizbait horiek omenduko zaizkio eta. Euskal Herriaren ideia garbi bat dauka. Beraz, euskaratik ikasi du.

Nafarroa sentitzen du eta nafar praktikantea da. Baina ez du inoiz Euskal Herriaren aurretik ipiniko eta gutxiago kontra. Euskarari laguntzen ahalegindu da beti, horrek bera bigarren mailara

pasarazten zuen askotan. Euskaratxo pertsonala ezin zuenean, bere prestigioa eman dio euskarari —beste nafar batek, P. M. Etxenikek bezala— zerbitzuan. Beti bere leku duina aitortu dio gure hizkuntzari.

Sentsibilitate oso finekoa da. Hala ere ez da sentimentu itsuek gidatzen dutena. Alemanian ezagutu nuenetik, gauza bat miretsi dut Monrealengan: gure mundu nahasian, ideiak garbi dauzka buruan. Euskal Herria artikulatzeko instituzioen erabateko inportantziak ideiak garbien zituen ezagutu dudana euskalduna da. Gero, bere ideiekin exigentea eta kontsekuentea da. Bere ahalegin handiena instituzio horiek finkatzen egin du. Instituzio politikoak eta kulturalak. Ez karguei eta ez postuei lotu zaie, bere lekua beste nonbait zegoela pentsatu duenean. “Lagunekin, ideiekin, beti leiala”: hori izan daiteke Goio Monrealen definizio posiblea ●